



Itsasoaren zaintzaileak: itsas ugaztunen osasuna ulertzen, lehorreratzeei buruzko datuen bidez



~Doako jarduera irekia
~18:00etan
~Donostiako Miramar Jauregian edo online

Hizlaria: Rebecca Von Hellfeld, Aberdeeneko Unibertsitateko ikertzailea.

"Itsas ugaztunen osasuna lehorreratzeen sarearen bidez monitorizatzeko Erresuma Batuan egindako lanari buruzko hitzaldia".

Ots. 05 2026

Kod. W03-26

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2026

Jarduera mota

Jarduera irekia

Data

Ots. 05 2026

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Ingelesa

Antolakuntza Batzordea



Azalpena

Itsas ugaztunek funtsezko zeregina betetzen dute gure ozeanoetan, adibidez, arrainen populazioak kontrolatzen dituzte, baina ozeanoen osasunaren mende ere badaude. Askotan “itsasoaren zaintzaile” deitzen zaien animalioek kutsaduraren, klima-aldaketaren, arrantza-jardueren eta beste giza presio batzuen ondorio konbinatuak islatzen dituzte.

Mintzaldiak Erresuma Batuko iraupen luzeko bi jarraipen programaren lana du ardatz: Ingalaterra eta Galesko Zetazeoen Lehorreratzeen Ikerketa Programa (CSIP) eta Itsas Animalien Lehorreratzeen Eskoziako Plana (SMASS). Erakunde horiek lehorreratutako itsas ugaztunen abisuei erantzuten diete, kasu guztiak erregistratzen dituzte eta animalia batzuen azterketa zehatzak egiten dituzte. Hala bada, hainbat hamarkadatan zehar bildutako lagin eta ezagutzen artxiboa dugu eskura, eta, horri esker, animalia horiek nola bizi ziren ikus dezakegu, zerk eragiten zuen haien osasunean eta, kasu askotan, zergatik hil ziren.

Horrez gain, lehorreratzeei buruzko datuak ingurumen-gai zabalagoen inguruko froga baliotsuak dira. Erregistratutako espezie kopurua edo motak aldatzea edo espezie horiek dauden lekuak aldatzea hainbat gauzaren adierazle izan daitezke: ozeanoen baldintzak aldatu direla, gaixotasunak zabaltu direla edo giza inpaktuak areagotu egin direla (esaterako, katramilatzeak, itsaspeko zarata edo kutsadura kimikoa). Kasu batzuetan, lehorreratutako animaliak arazo emergenteen lehen seinaleak dira: gaixotasun berriak edo itsasoen berotzeak itsas bizitzan dituen ondorioak.

Hitzaldian ikusiko dugu CSIP eta SMASS erakundeek lehorreratzeetatik bildu duten informazioa lagungarria izan dela kontserbazio-neurriei forma emateko, basa-bizitzaren babes hobetzeko eta gure itsasoen kudeaketari buruzko erabakiak hartzeko. Erresuma Batuko esperientzia partekatzean, hitzaldi honek erakutsi nahi du lehorreratutako itsas ugaztunak ez direla gure kostetako irudi tragikoak soilik, baizik eta mezulari garrantzitsuak ere badirela. Esaten digutena entzutea funtsezkoa da ozeanoen osasuna babesteko eta itsasoarekin harreman jasangarriagoa eraikitzeko.

Programa

2026-02-05

18:00 - 18:05 "Aurkezlea / Presentador / Presenter"

Idioma: Ingelesa

Manu Soto López | Director of the Plentzia Marine Station (PiE-UPV/EHU) and Professor of Cell Biology

18:05 - 19:15 "Sentinels of the Sea: Understanding Marine Mammal Health Through Strandings Data"

Idioma: Ingelesa

A talk about the work in the UK on monitoring marine mammal health through the strandings network

Rebecca von Hellfeld | Research Fellow, University of Aberdeen. BSc in Environmental Science and Business Management

Irakasleak



Rebecca von Hellfeld

Ikertzaile elkartua. Aberdeeneko Unibertsitatea. Ingurumen Zientzietan eta Enpresa Kudeaketan lizentziaduna.

Rebecca's research focusses on the impacts of contaminants like mercury on the health of marine mammals. She grew up in Germany, before moving to London (UK) in 2011 to study Environmental Science and Business Management (BSc) at the Queen Mary University of London. Following her passion, she then spent two years on the Erasmus Mundus MSc Marine Environment and Resources at the University of the Basque Country. While here, she developed a fascination with ecotoxicology, understanding how the exposure to a contaminant can lead to small changes in the body, which in turn can have a great impact on health. She obtained her PhD from the Ruprecht Karl University of Heidelberg in 2021, where her thesis focussed on assessing developmental neurotoxicity in fish. She has since started working at the University of Aberdeen as a researcher, where her work sheds light on how the use of the marine environment can affect the health of marine mammals.



Manu Soto López

Plentziako Itsas Estazioko (PiE-UPV/EHU) zuzendaria eta Biologia Zelularreko katedraduna.

Biologia Zelularra Ingurumen Toxikologian izeneko Ikerketa Taldearen ikertzailea 1983tik. 11 doktoretza gainbegiratu ditu. Uretako eta lehorreko organismoetako (zizareak, moluskuak, poliketoak, arrainak) kutsatzaileen (metalak, plastikoak, antibiotikoak...) aurkako efektuak aztertzen ditu. Euskal Herriko zetazeo lehorreratze sarearen arduraduna. 130 artikulua zientifiko argitaratu ditu. Ministerioak, EHUK, Eusko Jaurlaritzak etabarrekoak finantziatutako proiektuen Ikerle Nagusia. Azken 20 urteetan parte hartu du Europako ikerketa proiektuetan. Ebaluazio Agentziak Ikerketa Proiektuak Espainian, Portugalen, Erresuma Batuan eta Argentinan ebaluatzailea. Ingurumen Kutsaduraren eta Toxikologiaren Latinoamerikako Elkarteko (SICTA) kide fundatzailea da. Zientzia eta Teknologia Fakultateko dekanordea (2007-2012), Itsas Ingurumen Masterraren koordinatzailea (2012tik), Animalien Ongizaterako Etika Batzordeko kidea (2009-2012), Plentziako Itsas Estazioko zuzendariordea (Euskal Herriko Unibertsitatea) (2012-2024).

Matrikula prezioak

IZEN EMATEA - AURREZ AURRE

2026-02-05 ARTE

Orokorra

0 EUR

IZEN EMATEA ONLINE ZUZUENEAN

2026-02-05 ARTE

Orokorra

0 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa